



GABIRIAKO AGERRE-ALDE EHA 18ko HIRI ANTOLAKETARAKO PLAN BEREZIAREN INGURUMEN AZTERLAN ESTRATEGIKOAREN IRISMEN AGIRIA

AURREKARIAK

Agerre-Alde EHA 18 eremuaren Hiri Antolaketako Plan Berezia idatzi eta onartzeko izapideak abian jarri ditu Gabiriako udalak, udalerriko Hirigintza Plangintzarako Arau Subsidiarioetan zehaztutako eremu horren antolaketa xehatua egiteko.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, xedatzen du ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egin beharko ziela administrazio publikoak onartutako planei eta horien aldaketek, baldin eta horiek lege xedapen baten ondorioz egin behar badira, eta besteak beste, lege xedapen aginduz ingurumen eraginaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuei etorkizunean baimena emateko esparrua zehazten badute.

Halaber, 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, 4. artikuluan eta 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrak I. eranskinean xedatutakoaren arabera, plan bereziek etorkizunean lege xedapenez ingurumen eraginari buruzko ebaluazioa egin behar zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua osatzen badute, horiei ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura egin beharko zaie derrigorrez.

Lege xedapen aginduz ingurumen eraginari buruzko ebaluazioaren eraginpean dagoen proiektu bat etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen du Gabiriako *Agerre-Alde* EHA 18 eremuaren Plan; hain zuzen ere hektarea bat edo gehiagoko azalerako industria-eremua hiritartzeko proiektua. Aipagarria da area horren zati bat eremu urrakorrean dagoela kokatuta (Jabari Publiko Hidraulikoan). Beraz, arestian aipatutako xedapenek araututako ingurumen ebaluazio prozedurapean dago Plan Berezi hori.

2016ko uztailaren 1ean jasotako idatziaren bidez, Gabiriako udalak GFAko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari eskatu zion espedientearen ingurumen izapidetza abian jartzea. Eskaera horrekin batera dokumentazio hau bidali zuen Gabiriako udalak:

- Hasierako Agiri Estrategikoa
- Plan Bereziaren hasiera bateko onarpen agiria
- Ingurumen ebaluazio estrategikoaren eskabide inprimakia, behar bezala beteta (211/2012 Dekretua, V. Eranskina).
- Planaren azterlan akustikoa

2013ko abenduaren 9ko 21/20103 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 19. artikuluan eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, planen eta programen prestakuntzan ingurumen alderdiak txertatu ahal izateko, ingurumen organoak irismen dokumentu bat



osatu behar du (autonomia erkidego mailako dekretuko terminologiaren arabera erreferentzia dokumentua), erasandako administrazioei eta publiko interesatuari kontsultak egin ondoren, ingurumen azterlan estrategikoak eduki beharreko irismena eta zehaztasun maila zehazteko.

Beraz, Ingurumeneko Zuzendaritza nagusiak eskaera hori jaso ondoren, ebazpen honetako I. Eranskinean zehaztutako administrazio, entitate eta pertsonen kontsulta egin zien. Halaber, hasierako agiria GFaren Ingurumeneko webgunean (www.gipuzkoaingurumena.eus) egon da eskuragarri, publikoak egokitzen jotzen zituen ingurumen ekarpenak egin zituzan.

Erantzunak bidaltzeko zehaztutako epea igaro ondoren, honako erantzun hauek jaso dira:

- Eusko Jurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak adierazi du osasunak eta hiri plangintzak zuzeneko zerikusia dutela, eta beraz, onartutako hiri antolaketak osasunean duen eragina aztertu beharreko elementuetako bat izan behar dela. Osasunarekin zerikusia duten elementuen artean, bizikleta bidea eta espaloiak, espazio publikoko segurtasuna, legionelosiaren kontrola eta lurzoru kutsatuak aipatzen ditu txostenak.
- Eusko Jurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak adierazi du eremu horren barne dauden lurzati batzuetan nekazaritza erabilerak daudela gaur egun, eta nekazaritza balio handiko lurzoru alubialak okupatuko direla; halaber, kezka azaldu du ustiategi txikien bideragarritasunaren galeraren aurrean eta aipatu du Planak nekazaritza sektorean izango duen eragina ebaluatzea beharrezkoa dela, Nekazaritza eta basogintzako LAPean xedatutakoaren arabera.
- Eusko Jurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egiaztatu du Planaren eremuan ez dagoela Kultura Ondareko elementu katalogaturik. Hala ere, adierazi du antzeman gabeko elementuak egon daitezkeela.

1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 44. artikulua aplikatuz eta 2016ko uztailaren 19ko 22/2016 Foru Dekretuan xedatutakoaren bidean, plana onartzeko eskumen nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiaren den kasuetan, Agerre-Alde EHA 18 eremuaren Hiri Antolaketako Plan Bereziaren kasuan bezala, Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari dagokio ingurumen ebaluazioko prozeduretan hasierako kontsultei erantzuteko txostenak igortzea, baita planen eta programen ingurumen eraginaren ebaluazioak kontuan hartu beharreko alderdiei buruko ebazpena bidaltzea ere.

Beraz, Gabiriako udalak bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, eta jasotako txostenak kontuan hartuta, egiaztatu da judizio elementu nahikoak daudela. Beraz, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak Irismen Agiri hau igorri du, aldi berean, 2011/2012 Dekretuko 10. artikuluan xedatutako Erreferentziako Agiria ere badena.

1. Plan Bereziaren xedea eta esku hartzeak

Agerre-Alde 18 EHaren Hiri Antolaketako Plan Bereziaren xedea da 18 EHaren antolaketa zehatua zehaztea. Eremu horrek 29.857m²-ko azalera du eta Gabiriako Hiri Antolaketako egungo Arau Subsidiarioen arabera, industria erabilera gaur egun, zehazki Irizar Kooperatiba Elkartearen enpresaren zabalkunde eremu gisa.



Proposatutako antolaketa berriak enpresaren aparkaleku plataforma, Ormaiztegi eta Gabiria artean kokatutakoa, finkatzen du eta beste bi lursail eraikigarri ere mugatzen ditu.

Zehazki, planteamendu hauek egiten ditu Plan Bereziak:

- Bi lursail eraikigarri mugatzen ditu, "L" forman, zehazki Irizarren egungo lursailaren eta Agerreberri baserriaren arteko espazioan. Horietako batek, 15.830.m²-koak, Irizar Kooperatiba Elkartearen enpresak egun Ormaiztegin duen lursailarekin egiten du muga; eta besteak, berriz, 1.022 m² ditu eta GI-2632 errepidearen parean dago kokatuta, lehenengo lursailaren ondoan.
- Ormaiztegin kokatutako industria poligonoko errepidea erabiliko da lehenengo lursailera iristeko, eta bigarren lursailera iristeko, berriz, GI-2632 errepidetik sarbide errepide bat eraikiko da.
- Ormaiztegi eta Gabiria arteko muga zehazten duen Kastarrerreka erreka lurperatuko da, era horretan, espazioa ahalik eta gehien aprobetxatzeko.
- Agerreberri baserriaren ondoan 2.369 m²-ko lurzati pribatu ez eraikigarri bat dago. Baserriaren jabeak eskatutako moduan, lurzati hori baldintza beretan mantenduko da, bertan nekazaritza erabilera egin ahal izateko.
- Eremuko mendebaldean daude kokatuta espazio libre hiritarra (8.708 m²) eta Irizar Kooperatiba Elkartearen enpresaren egungo plataforma. Egungo errebidetik errepide publiko bat eraikiko da, bi baserri artean kokatuta, espazio libre horretara iristeko.
- Eraikiko diren errepide berrietako azalera aparkaleku zuzkidura bat zehaztu da; guztira 20 aparkaleku plaza sortuko dira izaera publikoko azalera, izaera pribatuko 80 aparkaleku plazez gain.
- GI-2632 errepidearen parean bidegorri bat eta espaloia proposatu dira, hirigintza araudi xehatuak eskatzen duen moduan.

Hiri antolaketako premiei aurre egiteko, Irizar Kooperatiba Elkartearen enpresak bere plataforma zabaltzeko premiei erantzuteko hiru aukera hartu dira kontuan antolaketa xehatuan. Agiriak 3. aukeraren alde egiten du, 1. eta 2. aukerekin alderatuta, balio agrológico handiko 2.500 m² lurzoru gutxiago okupatzen baititu. Hara ere, eremua inguratzen duen erreka txiki baten 161,5 metro estaltzea eskatzen du, era horretan, Irizar Kooperatiba Elkartearen egungo lurzatiaren eta EHA 18ren arteko jarraitutasun arazoak konpondu eta bi lurzati arteko barne zirkulazioa bermatzeko.

2. Ingurumen helburu estrategikoak, iraunkortasun irizpideak eta araudi iturriak

Ingurumenaren ikuspegitik iraunkorra izan behar da Plan Berezia. Helburu horretarako, Planak erantzun beharreko ingurumen helburuak zehaztu behar dira, baita hori osatzeko orduan beteko diren ingurumen eta iraunkortasun irizpideak ere. Ingurumen helburu eta irizpideak zehazteko orduan, honako hauek hartuko dira kontuan:



- Lurzoruaren kontsumoa eta artifizializazioa ahalik eta gehien murriztea.
- Paisaiaren faktorea antolaketan txertatzea eta eraikin berrien begi inpaktua murriztea.
- Nekazaritza baliabideak babestu eta nekazaritza ustiategiaren mantentzea sustatzea.
- Hirigintza antolaketaren ikuspegitik esparruan kokatuko diren industria-jarduerak sor ditzaketen ingurumen erasanak arintzea.
- Ibai eta erreketan erasana murriztea.
- Energia iraunkortasun irizpideak txertatzea bai antolamenduan bai eraikuntzan.
- Ingurumen erasanen prebentzioari lehentasuna ematea erasan horiek zuzendu edo orekatzearen aurrean, hain zuzen ere Plan Berezia osatzeko orduan ingurumen alderdiak behar bezala kontuan hartuz.
- Ingurumena hobetzeko aukera gisa ikustea Plana eta ez ingurumen erasanak sortzen dituen iturri gisa soilik. Beraz, antolatutako eremuaren barne espazio eta elementu degradatuak errehabilitatzeko eta ingurumenaren ikuspegitik hobetzeko jarduerak txertatuko dira.

Irismen Agiri hau osatzeko kontuan hartu diren ingurumen arau nagusiak eta Plan Berezia osatzeko orduan kontuan hartu beharrekoak II. Eranskinean daude aipatuta.

3. Proposamenen ingurumen balioespena

Gabiriako Hirigintza Plangintzarako Arau Subsidiarioetan mugatutako eremu bat lurzoru hiritar gisa modu xehatua antolatzea zehazten du Plan Bereziak. Beraz, antolaketarako proposamenak eta aukerak eremu horretara mugatzen dira. Hasierako Agiri Estrategikoak hiru aukera aurreikusten ditu eremu horretarako:

1. aukera izenekoak eremu lau ia osoa nabe batekin okupatzea proposatzen du, egun Agerreberri baserriaren berotegia dagoen lurzatia eta Irizar enpresak egun aparkaleku gisa erabiltzen duen eremuaren zati bat barne. Horrez gain, nabe txikiago bat ezartzea ere proposatzen du. Halaber, eremua inguratzen duen erreka txiki bat estaltzea proposatzen du, era horretan, Irizar Kooperatiba Elkartearen enpresaren plataformaren eta 18 EHAren zabalkuntza eremuaren arteko jarraitutasuna bermatu eta horien arteko barne zirkulazioa errazteko.

2. aukera izenekoak eremu lau ia osoa okupatzea proposatzen du, egun berotegia kokatuta dagoen lurzatia barne. Pabilioi berrietara iristeko GI-2632 errepidetik sarbide bat eraikiko da. Horri esker, ez da erreka lurperatu behar, baina bi eremuen arteko espazioak ez luke jarraitutasunik izango eta Irizarren lurzatia eta 18 EHA eremua Agerreberri baserriko lurzatiekin partekatuko liriteke.

Azkenik, 3. aukera izenekoak "L" formako nabe bat ezartzea proposatzen du. Horren bidez, egun baserriko berotegia dagoen lurzatia hiritartu gabe mantendu ahal izango litzateke, baina erreka estaliko litzateke, Irizarren egungo lurzatiaren eta garapen berriaren arteko jarraitutasuna bermatzeko.

Hiru kasuetan, eremuaren mendebaldea, malda gehien duena, espazio libre gisa uzten da.



Kontuan hartutako hiru aukeren artean, Udalak 3. aukera hautatu eta garatu du; ziur asko, ingurumenaren ikuspegitik aukera onena da, 1. eta 2. aukerek baino balio agrológico handiko 2.500 m² lurzoru gutxiago okupatzen baitu, era horretan, aurreko atalean aipatutako iraunkortasun helburu eta irizpideei erantzunez. Ildo horretan, modu positiboan baloratu behar da proposatutako antolaketak erreka ertzeko lurzoruen zati bat hiritartu gabe uztea nekazaritzarako erabil daitezen; baita antolamendu eremuko ekialdeko mendi-hegal ia osoa ere hiritartu gabe uztea ere.

Hala ere, eremua hiritartzean baliabide baliotsu bat galtzean da, modu atzeraezinean gainera: produktibitate handiko nekazaritza lurrak galtzen dira, eta hori erasan nabarmena da. Horrez gain, agirian proposatzen den antolaketak behin behineko erreka txiki baten 161,5 metro lineal estaltzea proposatzen du, eta industria eraikinek ere paisaia eragina izango dute, hautatzen den eraikin motaren arabera handiagoa edo apalagoa izango dena.

Eragin horiek murrizteko, ingurumen ebaluazio prozeduran zehar antolaketa proposamenak optimizatzen jarraitu behar da, Plana egikaritzeko orduan ingurumen eragin negatiboak ahalik eta gehien murrizteaz gain, aldi berean, industria eremua zabaltzeko premiei erantzuteko. Halaber, ingurumen erasan aipagarrienak antzeman eta balioesteko erabili beharko da ebaluazioa, ingurumenaren faktorea antolaketako hautabideen balioespenean txertatzeko eta planetan zein hori garatzen duten proiektuetan erasanei aurrea hartu, eraginak zuzendu eta konpentsatzeko neurriak txertatzeko, eragin horiek ahalik eta apalenak izan daitezen eta behar bezala konpentsa daitezen.

4. Eremu geografikoa eta ingurumen ebaluazio estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak

Ebaluazioaren xede den eremu geografikoa nahikoa izan beharko da Plan Berezian aurreikusitako jarduerak sortutako erasan guztiak ebaluatzeko; eta ez da antolaketako xede eremura mugatuko soilik: proposatutako jardueren bidez zuzenean ala zeharka erasan daitekeen eremu guztiak hartuko ditu barne.

Jarraian aipatutako funtsezko ingurumen alderdiak jorratu beharko ditu ingurumen ebaluazioak, baita administrazioek, erakundeek eta publiko interesatuak problematikotzat jotzen dituzten ingurumen gaiak ere.

- a. Nekazaritza baliabide eta ustiategietan sortzen diren erasanak. Antolatutako eremuan produktibitate handiko lurzoru alubialak daude, egun nekazaritza ustiategietarako erabiltzen direnak. Nekazaritza baliabideak urriak direnez, horien kontserbazioa faktore estrategikotzat jo behar da. Plana egikaritu ondoren galtzen den lurzorua eta erasanda geratzen diren ustiategi zehatzen bideragarritasuna behar bezala ebaluatu beharko dira. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak aipatutakoaren arabera, Nekazaritza eta Basogintzako LAPak xedatutakoa aplikatuz egin beharko da ebaluazioa. Ebaluazioaren emaitzaren arabera, eragin horien magnitudea murrizteko neurriak hartzeko ahalegina egingo da, eta beharrezkoa bada, neurri konpentsagarriak hartuko dira erasandako ustiategien bideragarritasuna bermatzeko.
- b. Paisaiaren transformazioa. Onartutako antolamenduaren ondorioz eta Planean aurreikusitako jarduerak egikaritzearen ondorioz paisaiak izango dituen



aldaketak balioetsi beharko dira. Antolamendu eta eraikuntza hautabideen balioespenean hori kontuan hartuko da, eta ordenantzetan baldintza zehatzak ezarriko dira ingurunean ikusizko kalitatean sortzen diren erasanak murrizteko.

- c. Jabari publiko hidraulikoan sortzen diren erasanak. Aukera posibleak balioetsi behar dira, ibilguetan ahalik eta erasan apalena sortzeko. Eremua inguratzen duen erreka estali behar bada, hori beharrezko tarteetan bakarrik egin beharko da. Edonola ere, jabari publikoan egin beharreko jarduketek administrazio hidraulikoaren baimena eduki beharko dute, eta azken horrek zehaztutako baldintza guztiak bete beharko dituzte. Planean erasandako ibilguaren beste zatietan ingurumena leheneratzeko neurri konpentsatzaileak txertatzea proposatzen da, edo bestela, Gabiriako udalerrian morfologikoki aldatutako beste ibaietan antzeko neurriak ezartzea.
- d. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen presentzia. Antolatu beharreko eremuko hein hain batek kutsatuta egon daitezkeen lurzoru gisa inbentariatutako lurzoruak ditu. Beraz, 4/2015 Legeak, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoak, xedatutako prebentzio eta administrazio neurriak hartu beharko dira, era horretan, giza osasunean eta ingurumenean arriskurik ez sortzeko. Behar bezala zehaztu beharko da 4/2015 legeko 23. artikuluan aurreikusitako lurzoru kalitate aldaketen deklarazioak egiteko kasurik ematen den. Halakorik badago, lurzoru kalitatea altzeko deklarazio eskaera egin beharko da.
- e. Egindako antolaketak kalitate akustikoan duen erasana. Planak antolatutako eremuko eta inguruko kalitate akustikoan duen erasana hartu beharko da kontuan. Horretarako, kanpotik iristen diren igorpenen ondorioz sortzen den kalitate akustikoaren estimazioak egiteaz gain, hain zuzen azterlan akustikoak egiten duena, eremuan aplikatuko diren foku igorle berriek (industria jarduerak, errepide berriek) ingurunean oro har eta bereziki antolamendu eremutik gertu dauden baserrietan sortzen dituzten erasanen gutxi gorabeherako estimazio bat egingo da.
- f. Baso masen eta espazio librean antolamendua. Eremuko ekialdean mugatutako espazio librearen antolamendurako proposamen zehatz bat eduki beharko du Planak. Espazio horretan duela gutxi landatutako eta balio ekologiko apaleko baso masa bat dago batez ere, eta hein handi batean espezie exotikoz osatuta dago. Bestetik, Agerre baserriko atzealdean, espazio libreria iristeko sarbidea eta aparkalekua ezarri nahi den lekuan, fruta arbolen plantazio bat dago. Plan Bereziak zehaztuko du eremu horri emango zaion antolamendua eta tratamendua, espazio publiko baten berezko funtzioak bete ahal izateko egin beharreko jarduerak zehaztuz, esaterako, bideak egokitzea. Halaber, mendi-hegalean kokatutako baso masa leheneratu eta ekologikoki hobetzeko jarduerak txertatzea ere komeni da, Planak sortutako erasanei aurre egiteko neurri konpentsatzaile gisa proposa daitezkeenak. Horien barne egon daiteke bertako espezieak landatzea, espezie exotiko eta inbaditzaileak erauztea, egitura dibertsitatea areagotzea eta bestelako neurriak. Bestalde, plantazioko fruta arbola batzuk edo guztiak kontserbatzeko aukerak balioetsiko dira.



5. Ingurumen azterlan estrategikoaren edukia eta irismena

Ingurumen Azterlan Estrategikoa Plan Bereziaren barne egongo den atala izango da, eta bertan, Plan Berezia aplikatzearen ondorioz ingurumenean sor daitezkeen erasan posible aipagarriak antzeman, deskribatu eta ebaluatuko dira. Halaber, arrazoizko aukera teknikoen azterketa bat ere egingo du (guztiak bideragarriak izan beharko dira ingurumenaren ikuspegitik), eta Plan horren aplikazioak ingurumenean izango dituen eragin negatiboari aurrea hartu edo horiek murrizteko beharrezkoak diren ingurumen integrazioarako neurriak ere azalduko ditu.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, IV. eranskinean xedatutako gutxieneko edukia eduki beharko du azterlanak; halaber, 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, II. Eranskinean xedatutako edukia eduki beharko du ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenetarako.

Eranskin horietan xedatutako atalak garatzeko orduan, agiri honetan aipatutako funtsezko gaiak jorratu beharko dira, baita administrazioek, erakundeek eta publiko interesatuak alegazioetan gai problematikotzat jo dituzten ingurumen gaiak ere, honako eskema hau garatuz:

- *Plan Bereziaren edukiaren laburpena eta helburu nagusiak*, baita horrekin zerikusia izan dezaketen hiri antolaketako eta lurralde zein alorreko planen bestelako tresnekin duen harremana ere.
- Nazioarteko, Europar Batasuneko, Espainiako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Gipuzkoako eta udaleko esparruetan zehaztutako *ingurumen babes helburuak*, baita Plana osatzeko orduan horiek nola kontuan hartu diren azaltzen duen justifikazioa ere.
- Antolatutako hirigintza eremuaren eta aurreikusitako jarduerak erasandako ingurunearen *ingurumen ezaugarriak*. Deskribapen horren barne egongo dira azterlaneko eremuak dituen presio eta ingurumen arazo nagusien azterketa, arazo horiek Planean zein eragin izango duten edo Planak arazo horiek areagotuko dituen ikusteko. Atal horretan, lagungarri gisa, kartografia tematikoa aurkeztuko da, beharrezko eskalan eginda, azkenean planera atxikitzen diren gai guztiak islatzen dituen.
- *Aukeren hautapen prozesuaren laburpen arrazoitua. Hautatutako itenbidearen justifikazioa*. Lehenik eta behin, industria jarduera zabaltzeko eskaerei erantzuteko beharrezkoak diren eraikin eta instalazioak (aparkalekuak, plataformak, sarbideak eta abar) azalduko dira, baita eskaera horiei erantzuteko aukera ezberdinak ere. Kontuan hartutako aukera bakoitzaren ingurumen eragina ebaluatuko da, hain zuzen ere 4. atalean aipatutako funtsezko ingurumen alderdiak kontuan hartuz. Halaber, aukera bakoitzaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa ere aztertuko da. Aztertu beharreko aukerak eraikin eta instalazio kokapen konbinazio ezberdinei egin behar diete erreferentzia, eta instalazio motatan eta diseinuan ere aldeak egon behar dira.

Industria instalazioak zabaltzeko aukerez gain, espazio librea antolatzeko aukera ezberdinak ere aztertzea komeni da, eremu horrek espazio publiko gisa daukan egokitasuna hobetzeko, baita kalitate ekologikoa eta nekazaritza potentziala areagotzeko ere.



Edonola ere, azkenean hautatutako aukerak behar bezala justifikatu beharko dira. Horretarako, erabilitako metodologia azalduko da eta garatu beharreko irizpide anitzeko azterketan ingurumen faktoreak, faktore tekniko-funtzionalak eta ekonomikoak zein heinean kontuan hartu diren azalduko da.

Azkenean hautatutako aukera ez badator bat ingurumen balioespen onena daukan aukerarekin, hori aukeratzeko arrazoiak behar bezala azaldu beharko dira.

- Xedapen eta jarduera ezberdinek ingurumenean sortu dituzten erasan aipagarrien *identifikazioa eta balioespena*. Plan Bereziaren aplikazioak ingurumeneko elementu ezberdinetan sortzen dituen ingurumen erasanak identifikatu eta balioetsiko dira, arreta berezia emanaz irismen dokumentu honetako 4. atalean aipatutako funtsezko ingurumen alderdiei. 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, VI. Eranskinetako 8. atalean zehaztutako terminologia erabiliz, identifikatutako erasan bakoitzaren magnitudea eta intentsitatearen ezaugarriak zehaztu eta balioetsiko dira.

Ingurumen integraziorako neurriak. Planean garrantzitsutzat jo diren erasanei aurrea hartu eta horiek murriztu eta konpentsatzeko zein neurri txertatu diren zehaztu beharko da. Ingurumen integraziorako neurriak Plan Bereziaren hirigintza dokumentazioan eta hori garatzen duten proiektuetan egon beharko dira bilduta. Neurri horien kostu ekonomikoaren estimazioa egingo da, horiek finantzatzeko moduan zehaztuko dira eta exekuziorako denbora plangintza zehaztuko da. Planaren ingurumen integrazioa egiteko, honako helburu hauek lortzeko neurriak hartu beharko dira:

1. Ingurumen erasanei aurrea hartzea, plangintzako lehenengo faseetatik ingurumen alderdiak txertatuz, eta erasan maila apaleko antolakuntza aukerak hautatuz, era horretan, neurri zuzentzaileak aplikatzeko premia murrizteko.
2. Saihestu ezin diren ingurumen erasanak zuzentzea, obra fasean aldatutako lurren eta elementuen leheneratze ekologikoa eta paisaia leheneratzea barne.
3. Saihestu edo zuzendu ezin diren erasanak konpentsatzea. Adibidez, Plan Bereziak horrelako konpentsaziozko neurriak eduki ahal izango ditu:
 - a. Antolakunde eremutik kanpo dagoen erreka degradaturen baten leheneratze morfologikoa edota ekologikoa egiteko jarduerak, eremua inguratzen duen behin behineko erreka estaltzea konpentsatzeko.
 - b. Nekazaritza lurzoruen ekarpena egitea, nekazaritza produktibitate handiko lurzoruen galera konpentsatzeko.
 - c. Espazio librearen zati bat biodibertsitatea sustatzeko erabiltzea, hain zuzen ere espazio horren leheneratze ekologikoaren bidez eta bertan ageri diren espezie exotiko eta inbaditzaileen (*Robinia pseudoacacia*) ordeztu bertako espezieak ezarritik, esaterako, baso mistoko edo harizti atlantikoko espezieak.
4. Urbanizazio proiektuan eta eraikuntza proiektuetan txertatu beharreko neurriak zehaztea, horien artean, Planaren mailan zehaztutako neurriak egikaritzeko aukera ematen dutenez gain, honako helburu hauek lortzeko balio dutenak:



- a. Industria eraikinen paisaia erasana ahalik eta gehien murrizteko.
 - b. Eraikinen eta kanpoko argiztapen instalazioen energia eraginkortasun egokia lortzeko.
 - c. Eraikuntza eta eraispn hondakinen kudeaketa iraunkorra egiteko.
 - d. Esparruan ezarriko diren foku igorle berrien igorpen akustikoak murrizteko.
- *Planen erasanen ingurumen jagoletzako programa.* Identifikatutako erasan bakoitzaren jarraipena egiteko aukera eman du, baita neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak betetzeko eta horien eraginkortasuna bermatzeko zein Planean xedatutako ingurumen helburuak lortzeko ere. Horretarako, jarraipena behar duten ingurumen alderdi edo aldagaiak identifikatuko ditu jagoletza programak, baita erabili beharreko metodologiak eta adierazleak eta ingurumen jarraipenaz eta finantzaketaz arduratzen diren pertsona edota entitateak ere.
 - Azterlanean emandako informazioari buruzko *laburpen ez-teknikoa*, informazio zehatzarekin eta publikoak oro har erraz ulertzeko terminoak dituen.
 - *Aukeren eta prebentzio neurrien zein neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.* Analisi ekonomiko-finantzario bat ere eduki beharko du, ahal den heinean, ingurumen eta gizarte izaerako kanpo kostuan azterketa ere kontuan hartzen duena. Horrez gain, Planak sor ditzakeen erasanei aurrea hartu edota horiek murriztu zein konpentsatzeko neurrien kostuaren estimazio edo aurrekontu xehatua ere zehaztu beharko da atal honetan, era horretan, plana dela eta sortzen diren ingurumen kostuak eta neurri horien finantzaketa iturriak barneratzen direla bermatzeko.

6. Ingurumen ebaluazioa eta jagoletza programa egiteko kontuan hartu beharreko adierazle kuantitatiboan edota kualitatiboan proposamena

Aukeren ingurumen ebaluazioa egiteko hautatutako adierazleak eta ikuskapen programak adierazle multzo batekin osatuta egongo dira: alde batetik, Plan Bereziak bere gain hartzen dituen ingurumen helburuekin; eta bestetik, Plana garatzen den bitartean aurreikusitako ingurumen erasanez. Era horretan; ingurumen helburuak betetzen ez badira edo horietan aldaketak sortzen badira, neurri zuzentzaile osagarriak txertatu ahal izango dira.

Ingurumen adierazleak:

- Zehaztutako ingurumen helburu eta irizpideei lotuta egon beharko dira, era horretan, benetako kudeaketa tresna gisa funtziona dezaten.
- Neurgarriak izan beharko dira, baita denbora serieetan aztertzeko modukoak ere. Denbora zehar izandako aldaketak islatu beharko dituzte, horiek aztertuz, joera negatiboari aurrea hartu edo horiek zuzentzeko aukera edukitzeko.
- Adierazle kopurua apala izan beharko da, eragile inplikatu guztiak erraz uler ditzaten. Horretarako, bakunak eta interpretatzeko errazak izan beharko dira.
- Lortzeko errazak izan beharko dira, eta ez dute informazio iturri anitzik beharko.



7. Informazio eta kontsulta modalitateak

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 21 eta 22. artikuluetan eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, informazio eta kontsulta modalitateei dagokienez, Plan Berezia onartzeko prozedura nagusian aurreikusitako izapideen barne, jarduera hauek egin beharko ditu Gabiriako udalak:

- a) Planaren aurretiko bertsioa eta haren ingurumen azterlan estrategikoaren kontsulta egin beharko die erasandako administrazio publikoei eta publiko interesatuari.
- b) Planaren alde aurreko bertsioa eta ingurumen azterlan estrategikoa jendaurrean jarri beharko ditu ikusgai, iragarkia aldizkari ofizialean argitaratuta. Eta gutxienez 45 eguneko epea emango du interesdunek aztertu eta bidezko oharrak egin ditzaten.

Hori guztia egiteko orduan, erasandako administrazio publikotzat eta publiko interesatutzat joko dira Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak irismen agiri hau egiteko kontsultatutako administrazio, entitate eta pertsonak —agiri honetako I. Eranskinean zehaztutakoak—, baita izapidetza prozesuan zehar Udalak identifika ditzakeen bestelako erakunde eta interesatuak ere (erasandako lurzati jabeak, herritar elkarteak eta abar).

8. Ingurumen deklarazio estrategikoaren eskaera eta planaren aldaketa posibleak jendaurreko izapidearen ondoren

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluaziori buruzkoak 24 eta 25. artikuluetan eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, 13. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, Plan Berezia behin betiko onartu baino lehen, Gabiriako udalak Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honi eskatuko dio ingurumen deklarazio estrategikoa igortzea (ingurumen txostena 2011/2012 Dekretuko terminologian). Eskaera horrekin batera, ingurumen ebaluazio estrategikoaren espedientea aurkeztu beharko du, agiri hauek osatutakoa:

- Plan Bereziaren hirigintza dokumentuek.
- Ingurumen azterlan estrategikoak.
- Dagokion alorreko araudiaren arabera derrigorrezkoak diren txostenen kopiek eta kontsulta zein jendaurreko informazio izapideetan aurkeztu diren alegazioen kopiek.
- Laburpen dokumentuak. Bertan, Gabiriako udalak azaldu beharko du nola txertatu diren ingurumen alderdiak, irismen agiria, ingurumen azterlan estrategikoa eta egindako kontsulten emaitzak, behin betiko proposamenean.

Beste alde batetik, kontuan hartu beharko da, Plana izapidetzeko epean, kontsultak eta jendaurreko informazio izapidea egin ondoren, aldaketarik egiten



den, eta horiek ingurumenean erasan nabariak sor ditzaketen eta erasan horiek ebaluatu ez diren. Edonola ere, 211/2012 Dekretuko 4. artikuluan xedatutako baldintzaren bat betetzen bada, Udalak horren berri eman beharko dio Zuzendaritza honi, Planean aldatutako alderdiak ebaluatzeko beharrezkoa den dokumentazioa bidaliz.

Donostian, 2016ko urriaren 13an

INGURUMENEO ZUZENDARI NAGUSIA,


Sin.: Felix Asensio Robles





I. ERANSKINA: Kontsultatutako administrazio publikoen eta pertsona interesatuen zerrenda

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 19. Artikuluan eta 2012ko urriaren 16ko 211/2013 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, 9. artikuluan xedatutako izapidea betez, Agerre-Alde 18 EHaren Hiri Antolaketako Plan Bereziaren ingurumen ebaluazio estrategikoa dela-eta honako erakunde eta instituzioei egin zitzaizen kontsulta:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Mendi eta Natura Ingurunekeko Zuzendaritza Nagusiari.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiari.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiari.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusiari.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusiari.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiari.
- IHOBeri.
- Euskal Ur Agentziari (URA).
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritzari.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzari.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzari.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko eta Meteorologia Zuzendaritzari.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzari.
- Eusko Jaurlaritzako Energia, Meategi eta Industria Administrazio Zuzendaritzari.
- Sasieta Mankomunitateari.
- Ormaiztegiko udalari.
- EHNERi (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- ENBARI (Euskal Nekazarien Batasuna)
- Gipuzkoako Ur Kontsultazioari
- Eguzki talde ekologistari
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa talde ekologistari
- Aranzadi Zientzia Elkarteari



- Goiekiri (Goierriko Garapen Agentzia)
- Goimeni
- Itxas Enara ornitologia elkarteari.
- Arkeolan fundazioari.
- Agirreberria baserriari
- Agirreberribekoa baserriari
- Agirreberrigoikoa baserriari
- Aroztegi Baserriari
- Irizar Kooperatiba Elkartearen enpresari.

II. ERANSKINA: Plan Berezia eta bere ingurumen azterlan estrategikoa osatzeko orduan kontuan hartu beharreko ingurumen arau nagusiak

Europako araudia

- Europako Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzkoa.
- 2000/60/EE zuzentaraua, uren politikarako erkidego mailako esparrua ezartzen duena.
- 2002/49/EE zuzentaraua, zaratari buruzkoa.

Espainiako estatuko araudia

- 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.
- 2015eko urriaren 30eko 7/2015 Errege Dekretu Legegilea, Lurraren eta Hiri Berritzearen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari eta naturaren kontserbaziorako gainerako araudi nazionalari buruzkoa.
- 2003ko azaroaren 17ko 37/2003 Legea eta 2007ko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretua, 2003ko azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratari buruzkoa garatzen duena, hotsen eremukatzeari, kalitate helburuei eta hots igorpenei dagokienean.
- 2001eko uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretu Legegilea, Ur Legearen testu bateratua onartzen duena.
- 2016ko urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretua, Plan Hidrologikoen berrikuspena onartzen duena.
- 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legea, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko araudia

- 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babestekoa.
- 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.



- Decreto 90/2014, de 3 de junio Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 2006ko ekainaren 23ko 1/2006 Uraren Legea.
- 2012ko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa.
- 2008ko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2006eko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko presazko neurriei buruzkoa.
- 2015eko ekainaren 25eko 4/2015 Legea, lurzoruaren kutsaduraren prebentzio eta zuzenketarako.
- 2014ko apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina eta Natura babesteko gainerako araudia onartzen duena.
- 1990eko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa.
- 2012ko urriaren 2ko 193/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza lurzoruaren erabilera kontserbatu eta sustatzeari buruzkoa.

Foru araudia

- 2007ko urtarrilaren 24ko 1/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzkoa.
- 2006ko urriaren 20ko 7/2006 Foru Araua, Gipuzkoako Mendiei buruzkoa.

